

| BILERA       |                                                                             | LHK – EUSKARA PLANA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |            |            |       |
|--------------|-----------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------|------------|-------|
| GAI-ZERRENDA |                                                                             | Eguna                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      | 2022/01/18 | Ordua      | 10:00 |
| DEITUAK      |                                                                             | Yolanda, Josu, Nerea, Asier eta Maite.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |            |            |       |
| Gaia         |                                                                             | Edukia                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |            | Arduraduna |       |
| 1            | BATZORDEKIDE BERRIA: ASIER                                                  | <p>Asierri ongi etorria eman eta batzordeko funtzionamendua azaldu diogu.</p> <p>Asierrek batzordean parte hartzeko interesa adierazi zuen eta bere burua aurkeztu zuen bertan parte hartzeko, langileen ordezkari bezala.</p> <p>Animatuta eta lanerako gogotsu azaldu da.</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |            |            |       |
| 2            | ABENDUAREN 16KO EKITALDIAREN BALANTZEA (NEURKETEN AZALPENA + TRIBIAL-JOKOA) | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Abenduaren 16ko ekitaldia aurreko urtekoaren segida izan zen: lehenengo zatian neurketen berri eman zen eta bigarren zatian jolaserako tartea hartu genuen. Neurketak aurkeztean, norberak bere hausnarketa egin zuen. Bigarren zatian gustura egon ginen, izan ere, horrelako ekimenak gogoz hartzen dira erakundeetan.</li> <li>- Neurketekin urteko errepasso bat egin eta irizpideak zeintzuk diren gogorarazi genuen (mezuak euskaraz, lehenengo hitza...)</li> <li>- Lehenengo zatian, batez ere, denok parte hartzeko ahalegina egin behar dugu, gaiari garrantzia eman behar diogu eta parte hartzeko ahalegina egin.</li> <li>- Bigarren zatia dibertigarria izan zen, eta lehenengo zatia oso interesgarria.</li> </ul> |            |            |       |
| 3            | 2022KO KUDEAKETA-PLANA ETA AURREKONTUA                                      | <p>Kudeaketa-plana onartuta, ekimen berriak aurrera eramaten hasiko gara lanean.</p> <p>Errotulazioa: arduradun bat izendatuko dugu egoitza bakoitzean, eta hurrengo Euskara Batzorderako ikuskapena eginda egongo da. Josu arduratuko da beste egoitzetakoekin hitz egiteaz.</p> <p>Trebakuntza: formakuntza orokorrean, hizlaria euskalduna izaten saiatu behar gara, edo behintzat arlo hori zaindu (materiala, agurrak, esaldi solteak, laburpenak...).</p> <p>Barne-trebakuntzako lehenengo saioa interneteko baliabideena izango da. Otsailaren 17an, 10:00etan. Data Josuk konfirmatuko du.</p> <p>Korrika: Bilbotik lanorduetan pasatzen bada, bertan parte hartzeko aukera baloratuko dugu.</p>                                                                   |            |            |       |

|                        |                    |                                                                                                                                                                                                                             |                   |              |              |
|------------------------|--------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------|--------------|--------------|
|                        |                    | <p>Lehiaketa bat: idatzizko mezuak, argazki lehiaketa II, olerki, txio lehiaketa... joango gara ideiak proposatzen.</p> <p>Window/Office: euskaratzeko aukerak baloratuko ditugu. Josu eta Maite arduratuko dira.</p>       |                   |              |              |
| 4                      | OTSAILEKO BULETINA | <p><b>Gaia proposamenak:</b></p> <p>Tomasen zutabea.</p> <p>Interneteko baliabideak.</p> <p>Korrika.</p>                                                                                                                    |                   |              |              |
| 5                      | KORRIKA            | <p><b>2022ko</b> martxoaren 31tik apirilaren 10era</p> <p>Bilbotik zein ordutan pasatzen den dakigunean, erabakiko dugu zer egin. Nola edo ahala, erakundean Korrikari bere lekua emango diogu.</p>                         |                   |              |              |
| 6                      | WEBGUNEA           | <p>Gure atala (Hizkuntza Normalkuntza) osatu gabe dago, eta komeni da falta diren edukiak sartzea.</p> <p>Arazo orokorrak daude webgunearekin, eta guri ere eragiten digu. Bideratuko dugu arazoak konpontzen direnean.</p> |                   |              |              |
| 7                      | KOORDINAZIO BILERA | <p>Bilera aurreko egunean egin zen. Akta jasota dago eta denon eskura jarriko da. Bileraren zati batzuk euskara hutsean egin ziren eta euskarak presentzia handia izan zuen.</p>                                            |                   |              |              |
| <b>Hurrengo bilera</b> |                    | <b>Eguna</b>                                                                                                                                                                                                                | <b>2021/02/10</b> | <b>Ordua</b> | <b>10:00</b> |

| BILERA                 |                                     | LHK – EUSKARA PLANA                                                                                                                                                                                                                                              |            |              |                        |
|------------------------|-------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------|--------------|------------------------|
| <b>GAI-ZERRENDA</b>    |                                     | <b>Eguna</b>                                                                                                                                                                                                                                                     | 2022/02/09 | <b>Ordua</b> | 10:00                  |
| <b>DEITUAK</b>         |                                     | Yolanda, Josu, Nerea, Asier eta Maite.                                                                                                                                                                                                                           |            |              |                        |
| Gaia                   |                                     | Edukia                                                                                                                                                                                                                                                           |            |              | Arduraduna             |
| 1                      | URTEKO AURREKONTUA                  | Proposamena aurkeztu genuen eta onartu zen. 2022ko Kudeaketa Planean oinarritutako proposamena da. Proposamena eskuragarri jarriko dugu irakurri nahi duenarentzat eta mezu bidez jakinaraziko dugu.                                                             |            |              | Josu                   |
| 2                      | OTSAILEKO BULETINA                  | Tomasen zutabea: Eginda dago.<br>Interneteko baliabideak: Saioa egindakoan laburpen bat egingo dugu (argazkia)<br>Bitxikeriak: Asierrek Bilbon edo Euskal Herrian gertatutako bitxikeria baten kontakizuna idatziko du.                                          |            |              | Josu<br>Asier<br>Maite |
| 3                      | INTERNETEKO BALIABIDEEN FORMAKUNTZA | Bilboko egoitzakoak bertan egongo dira eta Donostiakoak eta Gasteizkoak online jarraituko dute saioa. Ordubeteko saioa izango da eta Josu eta Maitek bideratuko dute. Materiala inprimatuta emango diegu eta gero praktikatzeko ariketak proposatuko ditugu.     |            |              | Josu<br>Maite          |
| 4                      | KORRIKA                             | Bilbotik ez da bulego ordutegitik pasatzen. Dokumental bat sortu zuten duela 2017an eta interesgarria litzateke oporren aurretik, Korrika bitartean, dokumentala ikustea. 30 minutuko dokumentala da, beraz, saioa biribiltzeko beste zerbaitek pentsatuko dugu. |            |              |                        |
| 5                      | WEBGUNEA                            | Halako batean, Hizkuntza Normalkuntzaren atala eguneratuko dugu. Hurrengo bilerarako ziur aski bukatuta egongo da. Jarraipena egingo dugu.                                                                                                                       |            |              |                        |
| 6                      | ERROTULAZIOA                        | Donostiako bulegoan su-itzalgailu errotulazio bat gaztelania hutsean agertu da. Piktogramarekin lagunduta dagoenez, izena kenduko dugu. Bilboko egoitzan piktogramak daude bakarrik.                                                                             |            |              |                        |
| <b>Hurrengo bilera</b> |                                     | <b>Eguna</b>                                                                                                                                                                                                                                                     | 2021/03/09 | <b>Ordua</b> | 10:00                  |

| BILERA          |                                     | LHK – EUSKARA PLANA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |            |       |            |
|-----------------|-------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------|-------|------------|
| GAI-ZERRENDA    |                                     | Eguna                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        | 2022/03/09 | Ordua | 10:00      |
| DEITUAK         |                                     | Yolanda, Josu, Bego, Nerea, Asier eta Maite.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |            |       |            |
| Gaia            |                                     | Edukia                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |            |       | Arduraduna |
| 1               | OTSAILEKO BULETINA                  | <p>Josuk martxoaren 1ean bidali zuen.</p> <p>Ahotsak web-orriko bideoa agian ulertzeko zaila da.</p> <p>Hurrengorako bideoaren transkripzioa batuaz jarri genezake.</p>                                                                                                                                                                                                                                                      |            |       |            |
| 2               | INTERNETEKO BALIABIDEEN FORMAKUNTZA | <p><b>Balorazioa.</b> Jende askok parte hartu zuen eta hau oso pozgarria da. Interesgarria izan zen.</p> <p>Etixerako lanak egiteko denbora gutxi egon da, hurrengoan tarte gehiago utziko dugu.</p>                                                                                                                                                                                                                         |            |       |            |
| 3               | SISTEMA ERAGILEA                    | <p>Josu eta Begiren ordenagailuetan aldaketa eginda dago.</p> <p>Euskara Batzordeko beste kideak hurrengo batzarrerako aldatzen saiatuko dira.</p>                                                                                                                                                                                                                                                                           |            |       |            |
| 4               | KORRIKA                             | <p>Apirilak 7 10:00etan egin dugu saioa. Bi orduko saioa izango da.</p> <p>Korrikako ordu erdiko dokumentala ikusiko dugu lehenengo.</p> <p>Ondoren Josuk prestatutako ariketa zuzenduko dugu eta bukatzeko joko bat prestatuko dute Josu eta Maitek.</p> <p>Saioa egin ondoren, webgunean notizia jarriko dugu.</p> <p>Maitek Korrika Digitala aurkeztu du eta ondo ikusi dute. Maitek prestatu eta Josuk zabalduko du.</p> |            |       |            |
| 5               | WEBGUNEA                            | <p>Hizkuntza Normalkuntzaren atala eguneratuta dago.</p> <p>Ideiak eta proposamenak ondoetorriak dira.</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |            |       |            |
| 6               | NEURKETA                            | <p>Mezu laburren neurketa egitea proposatu dugu, baina oso barneko mezu labur gutxi bidaltzen dira.</p> <p>Mintzagrama egitea pentsatu dugu, langile guztiak inplikatzin dituelako, eta Euskaraldira begira neurketa egokia iruditzen zaigulako. Maitek prestatuko du eta Bego arduratuko da langileen artean zabaltzeaz.</p>                                                                                                |            |       |            |
| Hurrengo bilera |                                     | Eguna                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        | 2022/04/28 | Ordua | 10:00      |

| BILERA       |                  | LHK – EUSKARA PLANA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      |            |            |       |
|--------------|------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------|------------|-------|
| GAI-ZERRENDA |                  | Eguna                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    | 2022/04/28 | Ordua      | 10:00 |
| DEITUAK      |                  | Yolanda, Josu, Bego, Nerea, Asier eta Maite.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |            |            |       |
| Gaia         |                  | Edukia                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |            | Arduraduna |       |
| 1            | EUSKARA SAIOA    | <p><b>Balorazioa (hizkuntza-atala, bideoa eta jolasa).</b></p> <p>Apirilaren 7an egin genuen. Balorazioa ona da.</p> <p>Etxeko lanak egiteko tarte gehiago usteak asko lagundu zuen. Itzultzaileak eta tresnak erabiltzen ikasteko ariketa aproposak izan ziren.</p> <p>Ariketa praktiko hauek egiten jarraituko dugu.</p> <p>Korrikako bideoa laburtu genuen. Ondo ulertzen zen eta atsegina izan zen ikusteko.</p> <p>Jolaserako, hurrengoan galdera batzorde bat egin genezake.</p> <p>Oro har ondo, ia guztiok parte hartu genuen saioan.</p> <p>Hurrengoa irailean egingo dugu.</p> |            |            |       |
| 2            | NEURKETA         | <p><b>Lankideen arteko idatzizko mezu laburren neurketa</b></p> <p>Langile bakoitzak beste langile bati bidalitako azken hamar mezuen (emailak) neurketa egingo du Josuk: nori bidali dion eta zein hizkuntzatan. Maitek mezuen datuekin grafikoak sortuko ditu.</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |            |            |       |
| 3            | SISTEMA ERAGILEA | <p><b>Batzar-geletako ordenagailuak euskaratu</b></p> <p>Batzar-gela erabiltzen duten teknikariek beraien artean hitz egingo dute, eta, ondo baderitzote, ordenagailuak euskaratu ditugu.</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |            |            |       |
| 4            | TEAMS            | <p><b>Euskaratuko dugu</b></p> <p>Lehenengo sistema eragilearekin proba egingo dugu, eta gero Teams euskaratzea baloratuko dugu.</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |            |            |       |
| 5            | BAGABILTZA VI    | <p><b>Ideiarik</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Apirileko euskara-saioaren balorazioa.</li> <li>• Karmeleri proposatuko zaio hurrengo zutabea idaztea.</li> <li>• Langileen arteko idatzizko mezu laburren neurketa.</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |            |            |       |

|                        |                                                        |                                                                                                                                                                                              |                   |              |              |  |
|------------------------|--------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------|--------------|--------------|--|
| 6                      | FORMAKUNTZA<br>SAIOA                                   | <b>Proposamenak</b><br>Baliabide informatikoak euskaraz erabiltzeko saioa eta argazki lehiaketa aurkeztu. Argazki lehiaketaren ordezt, postal bat bidali daiteke. Aurrerago baloratuko dugu. |                   |              |              |  |
| 7                      | WEBGUNE BERRIA<br>EUSKARAZ<br>(ENPRESABIDEA)           | <b>Nola zabaldu gurean.</b><br>Mezu bidez zabalduko dugu; eta, aldiro-aldiro, posta bidez albisteak, iritziak eta abar bidaliko dizkiegu lankideei.                                          |                   |              |              |  |
| 8                      | IMQ Prevención-en<br>mezuak erdara<br>hutsean datoz... | Ele bitan bidaltzeko eskatuko diegu.                                                                                                                                                         |                   |              |              |  |
| <b>Hurrengo bilera</b> |                                                        | <b>Eguna</b>                                                                                                                                                                                 | <b>2022/05/30</b> | <b>Ordua</b> | <b>10:00</b> |  |

| BILERA        |                            | LHK – EUSKARA PLANA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |            |            |       |
|---------------|----------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------|------------|-------|
| GAI-ZERRENDAA |                            | Eguna                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            | 2022/05/30 | Ordua      | 10:00 |
| DEITUAK       |                            | Yolanda, Josu, Bego, Nerea, Asier eta Maite.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |            |            |       |
| Gaia          |                            | Edukia                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |            | Arduraduna |       |
| 1             | AZKEN BULETINA             | <p><b>Maiatzeko buletinaren balantzetxoa.</b></p> <p>6. zenbakia izan da.</p> <p>Buletinetako edukiak ekaineko lehiaketarako erabiliko ditugu.</p> <p>Hurrengo buletinean, zutabea beste egoitza bateko lankide batek egingo du. Gasteizkoek idatzi dezakete.</p> <p>Neurketen emaitzak oso onak dira. Joera positiboa da.</p>                                                                                                                   |            |            |       |
